

OLENTZERO, OLENTZERO,
OLENTZERO ETORRI DA!
GOAZEN AZKAR,
OPARIA IKUSTERA.
ZER OTE DA? ZER OTE DA?
ZUHAITZ AZPIAN BEGIRA.

**GABONAK, GABONAK,
GABONAK HELDU DIRA!
APAINDU, APAINDU
ETXEA ETA ESKOLA!
HAU POZA!, HAU POZA!**

TIPI-TAPA, TIPI-TAPA,
OLENTZERO HEMEN DAGO.
TIPI-TAPA, TIPI-TAPA
TRIPAUNDI POTOLO. ¹

¹ Ibaizabal argitaletxea.

KANPOAN HOTZ,
BARRUAN BERO,
HEMEN DAGO GURE
OLENTZERO.²

² Ibaizabal argitaletxea.

OLENTZERO,OLENTZERO,
GURE ETXEAN SALDA BERO.
OLENTZERO, OLENTZERO,
GABONAK IRITSIZ GERO. ³

³ Eskolaurreko Euskararen Programakuntza liburutik.

TIPI-TAPA, TIPI-TON,
OLENTZERO HEMEN DAGO.
TIPI-TAPA, TIPI-TON,
TXIRIBI BON-BON .⁴

⁴ Eskolaurreko Euskararen Programakuntza liburua.

DUNBALA ETA DUNBA,
DUNBALA DON-DON.
DUNBALA ETA DUNBA,
DANBORRAK GOGOR.⁵

⁵ Haurtxoa bat liburua.

GABONAK HELDU DIRELAKO,
JOSTAILUAK ETA
KARAMELUAK
EKARRIKO DIZKIT
OLENTZEROK.
OSO ONA IZAN NAIZELAKO. ⁶

⁶ *Fantasia 4* liburua.